



Grabatua eta dantza eskutik helduta

Uztailaren 17an, zenbait dantza diziplinako bederatzi dantzarik Grabatudantza izeneko arte ekintza eskainiko dute, Txokolarte Altzako grabatu tailerraren ekimenez. Ekintza, Trinitate plazan egingo dute, 20:00etan.

Estibalitz Alvarez artista donostiarrak zuzendu du Grabatudantza ekintza. Estibalitz, Txokolarte grabatu tailerraren sortzailea da. Bestelako egitas-

motan ere jardun du donostiarrak: esaterako, "Paisaia horizontalak" izenekoan. Azken ekimen horretan, Alvarezek zenbait hiritako paisaia horizontalak (zorua, estolden estalkiak eta abar) grabatu izan ditu, zapalgailu baten laguntzaz.

Oraingoan Grabatudantzarekin datorkigu donostiarra. Ekimen aitzindaria da. Zer da Grabatudantza arte ekintza? Lau elementu erabiltzen dira ekintza egiteko: papeira, tinda, dantzariak eta oinarri erritmikoa (hain zuzen, metro-nomo baten eritmoa).

Dantzariak arlo ezberdinetakoak dira (flamenkoa, euskal dantza tradizionala, dantza garaikidea, ballet-a, break-a, funky-a, egiptiar dantza, dantza afro-kubarra...), eta beraien hankak eta eskuak tindaz busti ondoren, koreografiaren aztarnak marrazten dituzte zoruan ipinitako papere-tan.

Lan talde zabala

Dantzariak batera aritzen dira, gune handi batean eta nork bere koreografia 30 aldiz errepikatzen du, serie bat osatu arte. Dantzari bakoitzaren dantza errepikatzen denez, serieko grabatu guztiak berdinak dira.

Ekintzak prestatze lan handia eskatzen du: grabatuak erakusteko sarea zintzilikatu, lur-rean papeira jarri, tindatu, dantzatu, grabatuak jaso, ikusleei erakutsi, sarea zintzilikatu...



Estibalitz Alvarez:

«Oso ekintza ikusgarria da»

Dantzariak eta oro har lan taldea (40 lagun pasatxo) da ekintzako protagonista nagusia. *"Oso ekintza ikusgarria da, eta hainbat lanbidetako kideak aritzen dira: dantzariak, musikariak, eskalatzailak... Nahiz eta ideia nirea izan, herri ekintzat hartzen dut ekimena. Kaleko jendeak kaleko entzat egindako ekintza da. Edozein gauza egin daiteke laguntza izanez gero"*, dio Estibalitzek.

Esan bezala, arte ekintza hau hilaren 17an egingo da Trinitate plazan. Hala ere, eguraldiak lagunduko ez balu, Altzako pilotalekuan ikusteko aukera izango da, 20:00etan.



Argazkian Estibalitz Alvarez ekimenaren zuzendaria



Mikel Arroyo